

# Linux-ek 10 urte bete ditu

*Josu Waliño Pizarro*  
Informatikan lizentziatua

**Linus Torvalds-en eskutik jaio zen Linux sistema eragilea, eta 10 urte bete ditu aurten. Microsoft-i buruhauste bat baino gehiago sortu dizkion sistema libre hau gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari da. Azken lorpena, Linux euskaratzea, Eusko Jaurlaritzaren eskutik.**

“386 ETA 486ETARAKO SISTEMA ERAGILE ASKE BAT PRESTATZEN ARI NAIZ, baina ez da GNU bezain handi eta profesionala izango”. Mezu horren bidez zabaldu zuen Linus Torvalds-ek Linux-en jaio-tza 1991.eko abuztuaren 25ean. Orduan Helsinki-ko unibertsitateko ikasle zenak proiektu moduan landu zuen sistema eragile berri honen hasiera.

Handik hilabetera argitaratu zuen Linux-en hun edo nukleoaren 0.01 bertsioa. Sistema eragile hau boluntarioen laguntzari esker garatzen joan da urte-etan Internet bidez, eta informatikaren kontzeptu berria sortu du: software librea.



Software libre honetan oinarrituta, hainbat banaketa aurki daitezke merkatuan. Sortzen lehenak sistema eragilean espezializatutako enpresak izan ziren: Red Hat, Caldera, SuSE eta Turbolinux. Pixka bat geroago, softwarea-

hasi dira merkatu honen inguruan interesa azaltzen. HPk, esaterako, bere banaketa kaleratuko duela adierazi berri du.

## Kultura propioa

Baina zein da Linux-en arrakastaren sekretua? Batetik, sistema eragilearen eraginkortasuna. Linux-en egonkortasuna askotan aipatu izan da, eta urte-ekin hobetzen joan den kontua da. Bestetik, hardware desberdinetan lan egiteko ahalmena du, beste sistema eragile batzuek ez bezala. BeOS, Mac OS, OS/2 eta Unix-en hainbat bertsioik hardware-plataforma zehatz batzuetan bakarrik egiten dute lan, baina ez Linux-ek.

“Linux munduak filosofia eta kultura propioa ditu”

ren merkatuko enpresa erraldoiek ere interesa azaldu zuten sistema eragile honekiko, eta, horrela, Oracle eta beste enpresa batzuk ere Linux munduan sartu ziren. Gaur egun, IBM eta HP ere

Askoren ustez, ordea, ez da hau Linux-en arrakastaren oinarri bakarra. Linux munduak filosofia eta kultura propioa ditu. Rob Enderle analistak duela gutxi




Linus Torvalds.

esan zuen bezala, "Linux Windows-en aurrez aurreko eskaintza kontrakulturala izan zen. Apple-ek zeregin hori betetzeari utzi zionean, norbaitek bete behar zuen hutsunea". Esate baterako, aurten ospatu berri dira informatika-munduko bi urtemuga garrantzitsu: batetik, Linux-en hamargarren urteurren hau eta, bestetik, IBM PCaren 20. urteurrena. Lehenengoa ospatzeko, barbakoa egin zuten Linux-zaleek. Bigarrena ospatzeko, berriz, gala-afaria egin zen. Horretan ere ikus daiteke informatikaren munduko bi filosofien arteko desberdintasuna.

*"datorren urterako kalean izango da, euskaldunon eskura, Linux-en banaketa bat"*


## Linux euskaraz

Sistema eragile hau geroz eta zabalduago dagoela eta, euskaratzea erabaki du Eusko Jauriaritzak, lehen Windows-ekin egin zuen bezala. Lehendik ere hainbat boluntario Linux euskaratzen hasiak ziren, baina Jauriaritzaren helburua itzulpen horiek bateratu eta oinarritzko sistema eragilearen zati garrantzitsuenak euskaraz izatea da. Horregatik, Elhuyar eta UZEI ari dira orain sistema eragile honen Gnome idazma-haia euskaratzen, eta datorren urterako kalean izango da, euskaldunon eskura, Linux-en banaketa bat. 


## Hiru dimentsioko pantailak

Zeelanda Berriko enpresa batek garatu dituen pantaila berri hauen bidez, ez dago paperezko betaurreko xebererik jantzi beharrik irudiak hiru dimentsiotan ikusteko. DVI (Deep Video Imaging) izeneko pantaila hauek bi plano fisikotan eskaintzen dituzte irudiak eta, horrela, atzealdea ere ikusten den itxura sortzen dute. Monitoreak kristal likidozko bi geruza izaten ditu, bat bigarren plano moduan eta bestea lehen planoko irudiak azaltzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.actualdepth.com](http://www.actualdepth.com).



## DVD grabagailuak



Badirudi azkenean merkaturatu direla DVD grabagailuak. Hewlett Packard izan da lehenengoa, DVD+RW estandarrean oinarritutako grabagailuarekin. 120.000 pta. inguru balio duen grabagailu hori merkatuan dago jada, eta merkatuan dagoen estandarren arte-

ko lehia DVD+RW-ren lekua indartzeko balioko du. DVD+RW estandarra erabiliz, disko bat behin baino gehiagotan erabili ahal izango da, eta DVD erreproduzitzaile gehienekin bateragarria da. Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.hpcdwriter.com](http://www.hpcdwriter.com).

## Ordenagailua erraz berritu

Geure buruari askotan egindako galderari erantzuteko balioko du aurten-go PCExpo-n aurkeztutako txartelak: zergatik erosi behar dut ordenagailu berria hiru urtetik behin? PowerLeap enpresaren Renaissance/370s txartelaren bidez oso erraza da zure ordenagailu zaharra eguneratzea: plaka bakarrean sistema osoa dakar integratuta, eta nahikoa da ISA slot batean txartel hau sartu eta disko gogor, diskete eta abarreko kableak hona konektatzea gure 286 zaharra Pentium III bihurtzeko. Ez dugu gure ordenagailuko plaka nagusia kendu beharrik izango, besterik gabe desaktibatuturik geldituko da. Plaka berri horretan, memoria, txartel grafikoa, soinu-txartela eta Ethernet txartela integratuta datoz, eta ISA porturik ez dutenek USB bidez ere konekta dezakete. Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.powerleap.com](http://www.powerleap.com).

